



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA-OHARRA

## **BIZKAIKO EROSKETEN EUP! ATARIAK 3.435 SALMENTA LORTU DITU LEHENENGO URTEAN, % 37 LURRALDETIK KANPOKOAK**

- **Elkarrekin Bizkaia taldearen galderei erantzunez, Ainara Basurko Ekonomia Sustatzeko diputatuak BBK Fundazioak sustatu dauen tokiko merkataritzari laguntzeko plataforma horren balantze “positiboa” egin dau Bizkaiko Batzar Nagusietan.**
- **Foru parlamentuko Ekonomi Sustapenerako Batzordeak ez ditu onartu autonomoei eta ekintzaileei laguntzeko hainbat neurri jasoten dituen Talde Berezia-PP Bizkaia taldearen arauz besteko proposamen bi.**

(*Bilbon, 2022ko maiatzaren 20an*). Igazko bagilaren 6an aurkeztu zan Bizkaiko erosketen Eup! Ataria, BBK Fundazioaren Marketplace plataformea. Plataformak Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bilboko Merkataritza Ganberaren eta lurraldeko merkataritza-alkarte garrantzitsuen (Cecobi, Bizkaidenda eta Bilbodenda) babesa dau. Abian jarri zanetik ia urtebete igaro danean, Ainara Basurko Ekonomia Sustatzeko diputatuak jardurearen balantze laburra eskaini dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan, Elkarrekin Bizkaia taldearen galderei erantzunez. Aktibau zanetik, erosketa-atari horrek Bizkaiko saltokietan “3.435” eskari egitea lortu dau; horreetatik, produktuen % 37a lurraldetik kanpora bialdu da.

Bizkaiko tokiko saltoki txikiei laguntzeko asmau zan plataformak lurraldeko 423 saltokiri emon deutse altea, sinatu diran “536” kontraturen bidez. Saldutako produktuen ia erdia (% 48) elikagaiak eta edariak izan dira; % 20, moda eta osagarriak; % 9, edertasuna eta higienea; % 6, etxeko produktuak, etxetresna elektrikoak eta drogeria; eta % 3, liburu-dendako eta paper-dendako salmentak. Erosketen % 63 Bizkaira joan dira, eta ganerakoak (% 37) beste leku batzuetara bialdu dira: % 8 Madrilera, % 3 Arabara, % 3 Gipuzkoara eta % 2 Bartzelonara.

Bilboko, Barakaldoko, Basauriko eta Bermeoko saltokiak dira gehien saldu dabenak. Eta, azkenaldi honetan, udalerrri txikiagoek egindako salmentak azpimarratu behar dira, “Abadiñok edo Urdulizek”, adibidez. Eup! bitartez euren merkataritza-eskaintza “mobiduten” hasi dira. Guztien artetik, “65” saltokik “10 eskaera baino gehiago” jaso ditue, eta batez besteko erosketea “38,74 eurokoa” izan da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Trafikoari jagokonez, webguneak 1,5 milioi bisita izan ditu, 249.900 saiotan, eta bakotzak batez beste 4 minutuko iraupena izan dau. “173.200” erabiltzaile, eta erregistrautako “1.579” bezero dagoz.

Datu horreek emon ostean, Eup! esperientziaren lehenengo urtea “positiboa” izan dala adierazo dau Basurkok, horren ikuspegia “epe ertain eta luzekoa” dan arren. Ekimena abian jarreak indartu egiten dau Bizkaiko tokiko merkataritzak “eukan behar bat”: “kudeaketa profesionalizauaren” bidezko digitalizazioa. “Garrantzitsuena”, orain, saltoki gehiago sartzea da, “zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto”, eta saltoki horreek produktu-sortea zabaltzea.

Israel Escalante Elkarrekin Bizkaia taldeko batzordekidea bat etorri da diputatuagaz eta esan dau “beharrezkoa” dala Bizkaiko merkataritza digitalizetaren aldeko apustua egitea. Hori oso positiboa izan da pandemian zehar, baina zalantzan jarri dau Eup! sortu behar izana, lurraldean antzeko beste plataforma batzuk baegozalako, horreen artean Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako DENDAgO proiektua, edo geroago sortutako “Barakaldo Store”. “Bikoiztasun” horregaz jarraitzearen eta banku-fundazioaren plataformea sustatzeko gastua handitzen jarraitzearen kontra agertu da. Basurkok emondako zifrei jagokonez, Escalantek zehaztu dau azkenengo balantzea emon zanetik “datuek gora egin dabela, baina ez asko”.

## ZUZENeko LAGUNTZA GEHIAGO EKINTZAILTZARAKO

Ekonomi Sustapenerako Batzordean, enpresei eta autonomoei laguntzeko hainbat neurri ekonomiko ezarteko Talde Berezia-PP Bizkaia-aren arauz besteko proposamen bi eztabaidau dira. Bizkaiko parlamentuak atzera bota ditu ekimen biak.

Lehenengoan, “euren ibilbide profesionalean arrakastarik izan ez daben autonomoentzat eta ekintzaileentzat” zuzeneko laguntzak abian jarrea proponidu dau Esther Martinez batzordekide popularrak. Helburua “bigarren aukerea” emotea da, jardueria ixteagaitik prestazioa agortu osteko 6 hilebeteetan pizgarri ekonomikoa barru hartuko leuken programaren bitartez, prestakuntzarako eta aholkularitzarako, bai eta autonomoaren kuota jaisteko 12 hilebeteko laguntza ekonomikoa be. Proposamenak ez dau inoren babesik jaso parlamentuan; izan be, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek kontrako botoa emon dabe, eta EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia abstenidu egin dira.

Euzko Abertzaleen aldetik, Mikel Bagan batzordekideak ziurtatu dau Aldundia “daborduko beharrean ari dala” ekintzailetzari laguntzeko, “laguntza-sare zabala” osatuz. Laguntza hori 2020-2023 aldirako enpleo-planean zehazten da. Plan horrek



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

laguntza “pertsonalizauko” programa espezifikoko bi ditu, enpresak sustatzera eta sortzera eta negozioak sendotzera bideratutako zuzeneko laguntzakaz.

Victor Trimiño sozialistak gehitu dauenez, Aldundiaren inplikazioa “ezin da zalantzan jarri”, eta PPK erakusten dauen errealidadea “ez dala ikusarazo gura dan” bezain atsekabegarria ganeratu dau. Bizkaian pandemiaren aurretik baino “744 autonomo gehiago eta 7.000 lanbako gitxiago” dagoz, eta gogorarazo dau lurraldea 6. postuan dagoala Espainiako inpaktu-ekosisteman. Aldundiak abian jarritako ekimenak oso lagungarriak izan dira datu horreek lortzeko. Horreen artean dagoz mikrokredituetan inbertitutako 15 milioi euroak, Enpleo Plan Berezian inbertitutako 5 milioiak, ekonomia suspertzeko zuzeneko laguntza-programetara bideratutako 4 milioiak, edo Bizkaia Aurrera Digitalizazio Planeko 10 milioi euroak. Trimiñok proposamena egin dauen taldea kritikau dau. Izan be, ez da zentzuzkoa enpresei laguntzeko eta, aldi berean, zergak bajetako eskatzea, proposamen horreek finantzazioa behar dabelako.

Elkarrekin Bizkaia taldeak, “proposamenaren xedeagaz bat etorri arren egiteko moduagaz bat ez datorrela” esanez justifikau dau abstentzioa. Israel Escalantek “arlo publikotik enpleoa bultzatzea eta jentea kontrol eta berme barik zulara ez botatea” planteau dau, Aldundiak egiten dauen moduan. “Ez da administrazioen eginkizuna, “baina ez da baztertu behar negozioa hasi eta arrakastarik lortzen ez dauen jentea”.

Beste alde batetik, EH Bilduko Iker Rahonak autonomoei eta enpresa txikiei bideratutako zuzeneko laguntzen proposamenetan jarri dau arretrea. Bizkaiko lurraldeari jagokonez, Aldundiak 2020-2023 enpleo planean, eta, zehatzago esanda, 5. Erronkan, “balio erantsi handiko sektoreetara bideratutako ekintzailetzea” bultzatzea gurako leuke bere taldeak.

## ELKARGIREN ETA KOI-ICO-REN MAILEGUAK

Arlo horretan, Talde Berezia-PP Bizkaiak, arauz besteko beste proposamen batean, eskaria egin deutse Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari. Covid-19a zala-eta Elkargik eta KOI-ICOk, enpresentzat eta autonomoentzat, hurrenez hurren, abalau ebezan maileguen itzultzeak “malgutzeko” eskatu deutse “gitxienez gabealdiak eta mailegu horiek itzultzeko epeak luzatzea”, hain zuzen be. Ekimen hori be baztertu egin da, baina oraingoan Elkarrekin Bizkaia taldearen babesa jaso dau.

## BEAZEN BALANTZEA

Beste alde batetik, Batzordeak aho batez onartu dau Olatz Goitia BEAZ erakundeko arduradunaren eta Ainara Basurko foru diputatuaren agerraldia, Euzko Abertzaleak eta



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Euskal Sozialistak eskatuta, hurrengo saio batean alkarteak legegintzaldi honetan gauzatu eta aurreikusi dituan proiektuen barri emon daien. EH Bilduk erretirau egin dau BEAZeko zuzendaria bakarrik egotea eskatzen eban bere ekimena.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA

## **EL PORTAL DE COMPRAS DE BIZKAIA EUP! CONSIGUE 3.435 VENTAS EN SU PRIMER AÑO, EL 37% DE FUERA DEL TERRITORIO**

- **La diputada de Promoción Económica, Ainara Basurko, hace un balance “positivo” en las Juntas Generales de Bizkaia de esta plataforma de apoyo al comercio local impulsada por la Fundación BBK, a preguntas de Elkarrekin Bizkaia.**
- **La comisión de Promoción Económica de la Cámara foral rechaza dos proposiciones no de norma del grupo Mixto-PP Bizkaia con diferentes medidas de apoyo a personas autónomas y emprendedoras.**

(*Bilbao, a 20 de mayo de 2022*). El 6 de junio del año pasado se presentó el portal de compras de Bizkaia Eup!, un plataforma Marketplace de la Fundación BBK, que cuenta con el apoyo de la Diputación foral de Bizkaia, la Cámara de Comercio de Bilbao y de importantes asociaciones comerciales del territorio (Cecobi, Bizkaidenda y Bilbodenda). A punto de cumplirse un año desde su puesta en marcha, la diputada de Promoción Económica, Ainara Basurko, ha ofrecido hoy en las Juntas Generales de Bizkaia un pequeño balance de actividad, a preguntas de Elkarrekin Bizkaia. Desde que se activó, este portal de compras ha logrado consumir “3.435” pedidos a comercios de Bizkaia, de los cuales un “37%” de los productos han viajado fuera del territorio.

La plataforma ideada para apoyar al comercio local de Bizkaia ha logrado el alta de “423” tiendas, a través de “536” contratos firmados. Casi la mitad de los productos vendidos –el 48%- fueron alimentos y bebidas; el 20%, moda y complementos; el 9%, belleza e higiene; el 6%, productos del hogar, electrodomésticos y droguería; y un 3% fueron ventas de librería y papelería. El 63% de las compras tuvieron destino Bizkaia y el resto –el 37%- el producto fue transportado a otros lugares: un 8% a Madrid, un 3% a Araba, otro 3% a Gipuzkoa , y un 2% a Barcelona.

Los comercios de Bilbao, Barakaldo, Basauri y Bermeo son los que “lideran las ventas”. Y, últimamente, destacan las ventas protagonizadas por municipios más pequeños como “Abadiño o Urduliz” que empiezan también a “mover” su oferta comercial a través de Eup! . Del total, “65” comercios han recibido “más de 10 pedidos” y el ticket medio se ha situado en los “38,74 euros”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

En cuanto al tráfico, la web de Eup! ha recibido 1,5 millones de visitas, en 249.900 sesiones, con una duración media de “casi 4 minutos”. Hay “173.200” personas usuarias y “1.579” clientes registrados.

Tras ofrecer estos datos, Basurko ha señalado que la experiencia Eup! en su primer año es “positiva”, aunque su visión es “a medio y largo plazo”. La puesta en marcha de esta iniciativa “refuerza una necesidad” del comercio local de Bizkaia como es la “digitalización” del negocio a través de una “gestión profesionalizada”. Lo “importante” ahora es contar con un mayor número de comercios, “cuantos más mejor”, y que los que estén amplíen su gama de productos.

El apoderado de Elkarrekin Bizkaia, Israel Escalante, ha coincidido con la diputada en que es “necesario” apostar por la digitalización del comercio de Bizkaia, algo que ha resultado positivo especialmente durante la pandemia, pero ha puesto en entredicho la creación de Eup! cuando ya existían otras plataformas en el territorio como DENDago, proyecto subvencionado por el Gobierno vasco, o más recientemente la fabril “Barakaldo Store”. Se ha mostrado contrario a mantener esta “duplicidad” y ha cuestionado que se siga incrementando el gasto en promocionar la plataforma de la fundación bancaria. Sobre las cifras dadas por Basurko, Escalante ha matizado que “los datos aumentan, pero no mucho”, teniendo en cuenta el balance último.

## MÁS AYUDAS DIRECTAS PARA EL EMPRENDIMIENTO

En la comisión de Promoción Económica, se han debatido también dos proposiciones no de norma del grupo Mixto-PP Bizkaia para establecer diferentes medidas económicas de apoyo para empresas y personas autónomas. Ambas iniciativas no han contado con el apoyo suficiente para ser aprobadas.

En la primera, la apoderada popular Esther Martínez ha planteado poner en marcha ayudas directas “para aquellos autónomos y emprendedores que no hayan tenido éxito en su trayectoria profesional”. Se trataría de darles una “segunda oportunidad”, con un programa que incluyera un incentivo económico durante los 6 meses posteriores al agotamiento de la prestación por cese de actividad, para formación y asesoramiento, y ayudas económicas durante 12 meses para rebajar la cuota de autónomo. La propuesta no ha concitado ningún apoyo parlamentario, ya que Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han votado en contra, y EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia se han abstenido.

Desde las filas de Nacionalistas Vascos, su apoderado Mikel Bagan ha asegurado que la Diputación “ya está trabajando” en materia de emprendimiento con el tejido de una “amplia red de apoyo”. Ésta se concreta en un plan de empleo para el periodo 2020-





BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

2023 que cuenta con dos programas específicos de apoyo “personalizado”, con ayudas directas para el fomento y la creación de empresas, así como para la consolidación de los negocios.

La implicación de la Diputación es “incuestionable”, ha añadido el socialista Víctor Trimiño, quien ha señalado que la realidad que pinta el PP “no es tan desoladora como se quiere hacer ver”. En Bizkaia existen “744 personas autónomas más y 7.000 desempleados menos” que antes de la pandemia, y ha recordado que el territorio ocupa la 6ª posición en el ecosistema de impacto en España. Ayuda en estos datos iniciativas puestas en marcha por la Diputación como los 15 millones de euros invertidos en microcréditos, los 5 millones en el Plan especial de Empleo, los 4 millones en programas de ayudas directas para la reactivación económica, o los más de 10 millones del Plan de Digitalización Bizkaia Aurrera. Trimiño ha criticado al grupo proponente por pedir más financiación para estas cuestiones, ya que no casa solicitar que se incremente el apoyo a las empresas, mientras se pide una bajada de impuestos.

Desde Elkarrekin Bizkaia han justificado su abstención por “compartir el fin de la propuesta, pero no el cómo”. Israel Escalante ha planteado “favorecer el empleo desde lo público y no lanzar a la gente al vacío, sin control ni garantías”, como se hace desde la Diputación. “No es función de las administraciones, pero no hay que dejar de lado a esta gente” que inicia sin éxito un negocio.

Por su parte, Iker Rahona, de EH Bildu, ha puesto el foco en las propuestas de ayudas directas que su formación ha planteado en diferentes ámbitos para personas autónomas y pequeñas empresas. En relación al territorio vizcaíno, a su grupo le gustaría que la Diputación en su plan de empleo 2020-2023, y más concretamente en el Reto 5, impulsara el emprendimiento “hacia sectores de alto valor añadido”.

## PRÉSTAMOS DE ELKARGI Y DE ICO

En esta línea, el grupo Mixto-PP Bizkaia ha defendido, en otra proposición no de norma, que se instara al Gobierno vasco y al Gobierno central a “flexibilizar” la devolución de los préstamos avalados por Elkargi y el ICO con motivo del Covid-19, respectivamente, para empresas y personas autónomas, “cuando menos, de ampliar periodos de carencia y devolución de los mismos”. La iniciativa ha sido también rechazada, aunque en esta ocasión ha recibido el apoyo del grupo Elkarrekin Bizkaia.

## BALANCE DE BEAZ



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Por otro lado, la comisión ha aprobado por unanimidad, a petición de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, la comparecencia de la responsable de la entidad BEAZ, Olatz Goitia, y de la diputada foral Ainara Basurko para que informen en una próxima sesión de los proyectos desarrollados y previstos a lo largo de la presente legislatura por esta sociedad. EH Bildu ha retirado previamente otra iniciativa que pedía solamente la presencia de la directora de BEAZ.